

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

ARABAKO CAMPUSA
CAMPUS DE ALAVA
Juan Ibáñez de Sto. Domingo, 1
01006 Vitoria-Gasteiz

SARRERA

Esku artean duzu Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleei, irakasleei eta AZPri zuzendutako gida. Bertan, Lehen Hezkuntzako Gradu antolamendua deskribatzen da, eta titulazio osoan aintzat hartu beharreko aspektuak jasota datoz.

Gida hori UPV/EHUko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskolen arteko akordioetatik lortu zen, eta titulazioan inplikaturako sail guztiek hartu zuten parte. Gure asmoa da, beraz, gida honek titulazioaren ibilbide akademikoa ulertzen lagundu diezazula.

Agur bero bat.

Zuzendaritza taldea

AURKIBIDEA

Edukiak

SARRERA	3
AURKIBIDEA	5
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA	8
LANBIDE PROFILA.....	10
<i>Lehen Hezkuntzako Graduaren zeharkako gaitasunak (Z) eta gaitasun bereziak (B),</i>	
<i>Hezkuntza eta Zientzi Ministerioaren arabera:</i>	10
<i>Titulazioaren estruktura</i>	12
<i>Kurtsoko Gaitasunak Lehen Hezkuntzako Graduan</i>	13
TITULAZIOAREN EGITURA MODULARRA. IRAKASLEENTZAKO INPLIKAZIOAK.....	14
LEHENENGO KURTSOA	17
LEHENENGO KURTSOKO KONPETENTZIAK.....	18
LEHENENGO KURTSOKO IKASGAIK.....	19
ORDU BANAKETA.....	19
1. MODULUA: IRAKASLEAREN LANBIDEA.....	20
HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA.....	21
HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIA.....	22
IRAKASKUNTZA FUNTZIOA.....	23
KOMUNIKAZIO-GAITASUNAREN GARAPENA –EUSKARA ETA GAZTELANIA –	
LEHEN-HEZKUNTZAN I.....	24
GARAPENAREN PSIKOLOGIA ESKOLA ADINEAN.....	25
2. MODULUA: ESKOLA ETA CURRICULUMA.....	26
NATURAREN ZIENTZIAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASGELAN I.....	27
GIZARTE ZIENTZIAK ETA BEREN DIDAKTIKA I.....	29
MATEMATIKA ETA BERE DIDAKTIKA I.....	30
DIDAKTIKA OROKORRA.....	31
HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA.....	32
BIGARREN KURTSOA	33
BIGARREN KURTSOKO KONPETENTZIAK.....	34
BIGARREN KURTSOKO IKASGAIK.....	35
ORDU BANAKETA.....	35
3. MODULUA: KOMUNIKAZIO LANABESA.....	36
MUSIKA LEHEN HEZKUNTZAN.....	36
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK LEHEN-	
HEZKUNTZAN.....	38
KOMUNIKAZIO-GAITASUNAREN GARAPENA –EUSKARA ETA GAZTELANIA –	
LEHEN-HEZKUNTZAN II.....	39
ARTEAREN ETA IKUS-KULTURAREN HEZKUNTZA.....	40
IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA.....	41
PRACTICUM I.....	42
4. MODULUA: ANIZTASUNA ESKOLAN.....	44
IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA.....	45

ARTEAREN ETA IKUS-KULTURAREN HEZKUNTZA.....	46
HIZKUNTZAREN DIDAKTIKAREN OINARRIAK LEHEN HEZKUNTZAN TESTUINGURU ELEANITZETAN.....	47
ZAILTASUNAK GARAPENEAN ETA IKASKUNTZAN.....	48
ESKOLA INKLUSIBOAREN OINARRIAK.....	49
HIRUGARREN KURTSOA.....	51
HIRUGARREN KURTSOKO KONPETENTZIAK.....	52
5. MODULUA: EUSKAL CURRICULUMEN GAITASUNAK.....	53
ORDU BANAKETA.....	53
GORPUTZ-HEZKUNTZA ETA BERE DIDAKTIKA.....	55
ATZERRIKO HIZKUNTZA ETA BERE DIDAKTIKA.....	56
NATURAREN ZIENTZIAK LEHEN-HEZKUNTZAKO IKASGELAN II.....	57
GIZARTE-ZIENTZIAK ETA BEREN DIDAKTIKA II.....	58
HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA.....	59
MATEMATIKA ETA BERE DIDAKTIKA II.....	61
PRACTICUM II.....	62
LAUGARREN MAILA.....	65
4. KURTSOKO KONPETENTZIAK.....	66
LAUGARREN MAILAKO EGITURA.....	67
ORDU BANAKETA.....	67
PRACTICUM III.....	68
GRADU BUKAERAKO LANA.....	70
HAUTAZKOTASUNA GRADUKO TITULUETAN.....	71
GORPUTZ HEZIKETAKO MINORRA.....	72
GORPUTZ HEZKUNTZA ETA BERE DIDAKTIKA II.....	73
MOTRIZITATE KULTURA.....	75
GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA.....	76
MOTRIZITATEAREN GARAPENA.....	77
KULTURARTEKOTASUNEKO MINORRA.....	78
KULTURARTEKO HEZKUNTZAREN OINARRI TEORIKOAK.....	79
HEZKUNTZA POLITIKAK, KULTURA ARTEKO.....	80
KULTURA ARTEKOTASUNA ESKOLAN.....	81
BALIABIDE ETA ESTRATEGIA DIDAKTIKOAK KULTURA ARTEKO HEZKUNTZARAKO.....	82
PROIEKTU ZEHATZEN KUDEAKETA.....	83
KULTURA ARTEKOTASUNAREN DIMENTSIO KOMUNITARIOA.....	84
IRAKURZALETASUNA ETA LIBURUTEGIKO MINORRA.....	85
IRAKURZALETASUNA ETA LIBURUTEGIA.....	86
GAUR EGUNGO HAUR ETA GAZTE LITERATURA.....	87
LITERATURA TAILERRAK.....	88
IRAKURKETEN TAILERRA.....	89
HAUR ANTZERKIA ETA DRAMATIZAZIOA.....	90
HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUKO MINORRA.....	91
HIZKUNTZETAN INTEGRATUTAKO CURRICULUMA PRESTATZEKO OINARRIAK.....	92
HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZARAKO OINARRI TEORIKOAK.....	94
ZENTROKO HIZKUNTZA PROIEKTUA. HIZKUNTZA ANITZEKO HEZKUNTZA.....	96
HIZKUNTZEN ZEHARKAKO IKASKUNTZA. HINTZUNTZEN ARTEKO AZTERKETA ETA HAUSNARKETA.....	98

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN GIDA

BESTELAKO HAUTAZKOAK	100
<i>ERLIJIOAREN FENOMENOLOGIA</i>	100
<i>EUSKARAZ KOMUNIKATZEA</i>	101
<i>MINTZAMENERAKO LANTEGIA</i>	102
KREDITUEN BALOREA IRAKATS MODALITATEAREN ARABERA.....	103

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

Lehen Hezkuntzako graduarekin lortu nahi duguna da gure ikasleek beharrezko profil profesionala lor dezatela, gizartearen eskaerari erantzute aldera. Labur azalduko dugu zein den profil hori, eta baita ere zeintzuk diren gradu amaieran eskuratu beharreko gaitasunak.

Sarreran, halaber, aspektu hauek deskribatuko ditugu: ikasturte bakoitzean lortu beharreko gaitasunak, irakasgaien antolamendua titulazio osoan, titulazioaren modulu-egitura, eta irakasleen inplikazioak.

Gero, ikasturte eta modulu bakoitzaren egitura- eta ordutegi-banaketa azalduko ditugu.

Gida osoan bi kontzeptu errepikatzen dira, etengabe: "gaitasunak" eta "modulua". Uste dugu garrantzitsua dela kontzeptu horiek aipatzea, titulazioaren ikasturte bakoitzeko elementuen deskribapen xehatua eman aurretik.

Zer dira gaitasunak? Zein ondorio dakartzate? Zer lortu nahi da?

Gaitasunak azaltzeko definizio ugari daude, baina agian eskola honetan ulertu ditugun modura gehien egokitzen dena da Lesnier-ena (2000): "Izaera bera duten egoeretan (antzeko egoeretan, ezin da edozein egoerara orokortu) behar bezala erabilitako gaitasunen eta trebetasunen (kognitiboak, afektiboak, psikomotorrak edo sozialak) eta ezagutzen (adierazpen-ezagutzak) integrazioaren, mobilizazioaren eta egokitzapenaren emaitza den egiten jakite konplexua": Edo DESECOren definizio hau: "gaitasuna eskaera zailei erantzuteko eta zereginak behar bezala betetzeko ahalmena da. "Ekintza eraginkorra lortzeko elkarrekin mugitzen diren elementu hauen konbinazioa da: ahalmen praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balore etikoak, jarrerak, emozioak eta beste osagai batzuk (sozialak eta jokabidezkoak)" (Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen -OCDE- Gaitasunen Definizioa eta Hautaketa proiektua-2002).

Gaitasunen arabera lan eginda, geure praktikak berrikusi beharra sortzen da eta, hortaz, gaitasunez mintzo garenean, esan gura dugu (Cano 2008):

- 1.- Jakintzak integratu: gai izatea, jakintza, gaitasun, trebezia, jarrera eta bestelako en multzo baten jabetzeaz harago, hauek guztiak behar bezala hautatu eta konbinatzea da.
- 2.- Jardunean aritu: gai izatea jardunari lotua dago, betearazpenari; praktikatik ezin bereizia da.
- 3.- Inguruaren arabera jardun: ezin izan daiteke gai "abstraktuan", baizik eta inguru zehatz batekiko (tokian tokikoa, unean unekoa, egoeraz egoera). Beraz,

egoera bakoitza aztertu behar da zeintzuk jakintza baliatu behar diren (horren egokiak ez liratekeen beste aukera batzuk ezetsiz).

4.- Etengabeen ikasi: gaitasuna etengabeko jardunean erdiesten da, hasierako prestakuntzan, etengabeko prestakuntzan eta lanean (zein kanpoan) eskuratutako esperientziaren bidez. Horregatik, etengabeko aurrerapenaz mintzo gara.

5.- Autonomoki aritu behar da, "profesionaltasunez" hartutako erabakien erantzukizuna bere eginik eta zein bere gaitasunen sustapen eta hazkuntzan eginkizun aktiboa hartuz.

Honengatik guztiarengatik, "modulukako irakaskuntza" planteatzen da. Lan esparru diziplina anitz berriak behar dira, non garatu eta burutuko ahal baitira ikasketa esperientzia integratuak, jakintzaren arlo ezberdinetatik egindako ikuspuntu desberdinak gai, problema, kasu eta abar baten inguruko osotasunean batu eta integratuz, irakaskuntza osoa honen guztiaren funtsaren inguruan gorpuzteko. Ikaskuntzarako proposamen hauek esparru profesionalean sor litezkeen egiazko problemen inguruko gogoeta eta hausnarketa erraztu beharko dituzte, berorietara hurbildurik.

LANBIDE PROFILA

Etorkizuneko graduatuek ikasgelako lanean dagozkien curriculum diseinuetako eremuak ezagutu eta menderatu beharko dituzte, eta eduki motaren eta zailtasun-mailaren arteko korrespondentzia egokia ezarri beharko dute, ikasleen prozesu kognitiboekin eta garapen-mailarekin erlazionatuz eta neska-mutilen bakarkako ikasketa sustatuz. Beraz, ikasle bakoitzak gaitasun hauek bete beharko ditu:


- Esperientzia-eremuetan aplikatzen diren ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea, oinarri hartuta ezagutza-arloetako azterketak eta horien bitartez aurrera eramandako esperientzia arrakastatsuak.
- Lantaldean aritzea, eta lanbide-jarduera hobetzen lagun dezaketen ezaguerak eta esperientziak trukitzea, lanarekiko eta beste pertsonenganako errespetua erakutsiz, betiere.
- Testuinguru soziala kritikoki aztertzekeo gai izatea; izan ere, azterketa hori oinarri hartuta jardun dezakegu, baita dagozkien multzoak kudeatu ere, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte hartzen duten alderdi elkarreragileak ezagutzuz, eta testuinguru horien kalitatea mantenduko duten estrategiak diseinatuz. Ildo beretik, ikuspegi errealista batetik, etorkizuneko irakasleak erantzukizunak hartu beharko ditu bere gain, eta erabakiak hartu baita ere; hori horrela, bere portaera bera berrikusteko prest azaldu behar du, eta prozesuan eman daitezkeen zailtasunak erlatibizatzen eta gainditzen jakin behar du, hobetzeko neurriak hartuz.
- Hezkuntza-ikerkuntzatik emandako ikusmoldeak aztertzea eta zalantzan jartzea, eta informazio- eta komunikazio-bideak modu kritikoan erabiltzea, ikaskuntza, ikerkuntza eta lankidetzak bultzatzeko, betiere, eta aldakorrek diren testuinguru soziokulturalei egokitzapen eta erantzun eraginkorra emateko.
- Koordinazio-lanak betetzea, familiarekin biltzea eta eskola-elkartekideekin eta gizarte-eremuko kideekin sarean lan egitea; baita diziplina anitzeko esku-hartzeak sustatzea ere, neska-mutilen ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko.

Lehen Hezkuntzako Graduaren zeharkako gaitasunak (Z) eta gaitasun bereziak (B), Hezkuntza eta Zientzi Ministerioaren arabera:

- (Z) Lehen Hezkuntzako ikasketa-ereduak eta horien artean dagoen diziplina arteko harremana eta ebaluazio-irizpideak ezagutzea, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozeduren gaineko ezagutza didaktikoak ikastea.
- (Z) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea, banaka zein zentroko beste pertsona batzuekin lankidetzan (irakasleak eta bestelakoak).
- (Z) Hizkuntzen ikaskuntzari eraginkortasunez heltzea, testuinguru kultura eta hizkuntza anitzetan. Eskola-curriculumean agertzen diren

testu zientifikoen eta kulturalen irakurketa eta hausnarketa kritikoa sustatzea.

- (B) Aniztasun-egoeretan, ikaskuntza-espazioak diseinatzea eta erregulatzea, genero-berdintasuna, zuzentasuna, errespetua eta herritarren hezkuntza osatzen duten giza eskubide guztiak kontuan izanik.
- (B) Ikasgelan eta bertatik kanpo bizikidetzak sustatzea, diziplina-arazoak konpontzea, eta gatazkei irtenbide baketsua ematen laguntzea. Ikasleen ahalegina, iraunkortasuna eta diziplina pertsonala adoretzea eta baloratzea.
- (B) Lehen Hezkuntzako zentroyen antolakuntza ezagutzea, eta horien funtzionamenduak hartzen dituen jarduera guztiak ulertzea. Ikasleekin eta haien familiekin tutoretza- eta orientazio-lanak egitea, ikasle bakoitzaren hezkuntza behar zehatzei arreta emanez. Onartzea irakaskuntza hobetzen joan behar dela zientzian, pedagogian eta gizartean ematen den aldaketekin batera.
- (Z) Eskola-elkartearen eta gizartearen sektoreetan laguntzea. Irakaskuntzak berezko duen funtzio hezitzailea onartzea, eta hezkuntza demokratikoa sustatzea, herritar aktiboak lortzeko.
- (B) Ezagutzen, balioen eta erakunde sozialen, publikoen eta pribatuen gaineko iritzi kritikoa eta autonomia mantentzea.
- (B) Erantzukizun indibiduala eta kolektiboa baloratzea, etorkizun iraunkorra lortzeari dagokionez.
- (Z) Ikasgelako jardueren gainean hausnartzea, irakaskuntza berritzeko eta hobetzeko. Ikaskuntza autonomia eta lankidetzakoa lortzeko ohiturak eta trebetasunak hartzea, eta ikasleen artean hedatzea.
- (Z) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea, eta ikasgelan aplikatzea. Ikaskuntzarako, herritartasunerako eta kultura-aberastasunerako lagungarria den ikus-entzunezko informazioa aukeratzea.
- (B) Hezkuntzak gaur egungo gizartean dituen funtzioa, aukerak eta mugak ezagutzea, eta lehen hezkuntzako zentroyei eta bertako profesionalei eragiten dieten funtsezko gaitasunak ere bai. Ikastetxeetan aplikatu daitezkeen kalitatea hobetzeko ereduak ezagutzea.
- (Z) Euskaraz eta gaztelaniaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza bat menderatzea, eta produkzio eta ulermen zuzenak eta egokiak erakustea, lanbidea hezkuntza-testuinguru hizkuntza anitz batean garatu ahal izateko, hizkuntza- eta kultura-aniztasunarekiko errespetua mantenduz.



Titulazioaren estruktura

Kurtsoko Gaitasunak Lehen Hezkuntzako Graduan

	1. IKASTURTEA	2. IKASTURTEA	3. IKASTURTEA	4. IKASTURTEA	
G1	Lehen hezkuntzako eskola ezagutzea eta kokatzea egungo hezkuntza-sisteman, gure testuinguruan, Europako testuinguruan eta nazioartekoan jarduera berritzaileak ezagutzeko eta alderatzeko eta balioen hezkuntzan arreta jartzeko.	Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea, ikasgelan eta zentroan esku-hartze egokia egiteko, ikasleen beharrei eta ikaskuntzako zailtasunei inklusioko irizpideen arabera erantzunez.	Irakaskuntza-jardueran parte-hartzea eta esku-hartzea, praktikaren gaineko hausnarketak eginez eta testuinguruan ekiteko lan-irizpideak adieraziz.	Jardueratik abiatuta gogoetak egitea, irakaskuntza-eginkizunaren gabeziak eta indarguneak identifikatzeko; eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak.	TESTUINGURUENA ZEHATZEA
G2	Tutorearen eta orientatzailearen eginkizunak identifikatzea eta egiten jakitea, ikasle bakoitzak bere inguruarekin duen harremana balioetsita eta gatazken konponbide baketsuaren alde eginda.	Ezagutza praktikoa eskuratzea, behaketa teknikak erabiliz, datuak bilduz, aztertuz eta ebaluatuz, bai lehen hezkuntzako gelan eta bai eskola inguruan.	Irakaskuntza jarduerari bideratutako estrategia eta baliabide didaktikoak aztertzea eta alderatzea banaka nahiz taldeka, komunikazioaren eta informazioaren teknologiarik erabilia.	Etapako esperientzia eremuen proposamen didaktikoak egitea eta ebaluatzea, hainbat metodologia didaktiko erabilia.	BEHAKETA ETA ANALISIA
G3	6-12ko tartean hezkuntza-prozesuen eta ikaskuntzaren oinarriko printzipioak ulertzea eta aplikatzea familia-, gizarte- eta hazkuntza-testuinguruan, informazioa bilatzeko eta erabiltzeko tekniken bidez.	Esperientzia eremuen printzipioak ezagutzea, beren berariazko baliabide didaktikoak aplikatuz irakaskuntza-jardueraren hurbilketan.	Etapako curriculum arloetako proposamen didaktikoak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, jarduerari lotutako arazoaren eta erronken gaineko gogoetak eginez eta ikasleen hazkuntza beharrek, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta giza eskubideak aintzat hartuz.	Garrantzitsua den informazioa aztertzea eta laburbiltzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeari begira egitasmo berritzaileak diseinatu ahal izateko.	ULERTZEA ETA EZARTZEA
G4	Etapako curriculum arloen oinarriko printzipioak ezagutzea eta aztertzea banaka nahiz taldeka, EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskuratutako oinarriko komunikazio eta hizkuntza gaitasunak erabilia.	IKTak erabiltzea, norberaren eta elkarlanaren ikaskuntzako eta ezagutza eraldatzeko tresna gisa, askotariko baliabide grafikoak eta multimedia-baliabideak erabilia.	Komunikazio- eta adierazpen-trebetasunak hobeto mederatzeko.	Hausnartzeko eta argumentatzeko autonomia-gaitasuna garatzea ikasketen eta lanaren gaineko iritziak emateko, erabakitze eta hezkuntzari lotutako arazoak konpontzeko, bai bakarka bai elkarlanean.	KOMUNIKAZIOA ETA ARLOAK
G5		Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialen komunikazio-gaitasunak garatzea, erreferentziako Europako esparruaren B2 maila lortu arte.		Komunikazio-gaitasunak erabiltzea Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialetan erreferentziako Europako esparruaren C1 maila eskuratu arte	

TITULAZIOAREN EGITURA MODULARRA. IRAKASLEENTZAKO INPLIKAZIOAK

Titulazioaren egitura modularra dela eta, sailek irakasgai-arduradunak izendatuko dituzte, modulu bakoitzeko lantaldeak osatzeko. Modulu bakoitzean titulazio koordinatzailea egongo da, eta titulazio bakoitzean gradu-arduraduna. Irakasleen Berrikuntza eta Koordinazio Zuzendariordetzak antolatuko du koordinazio-sare osoa, eta Kalitate eta Hobekuntza Zuzendariordetzak egingo dio jarraipena, Kalitate Batzordeak gainbegiratuta. Hona hemen arduradun bakoitzaren betebeharrak.

IRAKASGAI-ARDURADUN BAKOITZAREN ZEREGINAK	
EZAGUTZEA	Modulu eta materien arkitektura
	Moduluen banaketa
	Ikasturte bakoitzari dagozkion gaitasunak
	Irakasgaien finkatutakoa (berariazko gaitasunak, gai-zerrenda, ebaluazio-irizpideak)
HAUEIBURUZ HAUSNARTZEA	Moduluaren kontzeptua
	Modulu bakoitzari dagozkion gaitasunak
	Zer izan dezakete materiek antzekoa, eta zer berezkoa?
	Zer lan eskatuko dizkiegu ikasleei eta noiz eskatuko dizkiegu?
DISEINATZEA	Moduluri dagozkion gaitasunak
	Guztion eginkizuna
	Ebaluazio-irizpideak?

MODULU-KOORDINATZAILEEN ZEREGINAK


EZAGUTZEA	Modulu eta materien arkitektura
	Moduluen banaketa
	Ikasturte bakoitzari dagozkion gaitasunak
	Irakasgaien finkatutakoa (berariazko gaitasunak, gai-zerrenda, ebaluazio-irizpideak)
HAUEI BURUZ HAUSNARTZEA	Moduluaren kontzeptua
	Modulu bakoitzari dagozkion gaitasunak
	Zer izan dezakete materiek antzekoa, eta zer berezkoa?
	Zer lan eskatuko dizkiegu ikasleei eta noiz eskatuko dizkiegu?
DISEINATZEA	Moduluari dagozkion gaitasunak
	Guztion eginkizuna
	Ebaluazio-irizpideak?
TALDEA DINAMIZATZEA	Irakasgai bakoitzeko arduradunak biltzea
	Lanerako materialak ematea
	Proposamenak moderatzea eta dinamizatzea

LEHENENGO KURTSOA

LEHENENGO KURTSOKO KONPETENTZIAK

	1. KURTSOA	GRADUAREN ARDATZAK
1.K	Lehen hezkuntzako eskola ezagutzea eta kokatzea egungo hezkuntza-sisteman, gure testuinguruan, Europako testuinguruan eta nazioartekoan jardura berritzaileak ezagutzeko eta alderatzeko eta balioen hezkuntzan arreta jartzeko	TESTUINGURUA ZEHATZTEA
2.K	Tutorearen eta orientatzailearen eginkizunak identifikatzea eta egiten jakitea, ikasle bakoitzak bere inguruarekin duen harremana balioetsita eta gatazken konponbide baketsuaren alde eginda	BEHAKETA ETA ANALISIA
3.K	6-12ko tartean hezkuntza-prozesuen eta ikaskuntzaren oinarrizko printzipioak ulertzea eta aplikatzea familia-, gizarte- eta hezkuntza-testuinguruan, informazioa bilatzeko eta erabiltzeko tekniken bidez	ULERTZE ETA EZARTZE
4.K	Etapako curriculum arloen oinarrizko printzipioak ezagutzea eta aztertzea banaka nahiz taldeka, EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskuratutako oinarrizko komunikazio eta hizkuntza gaitasunak erabilia	KOMUNIKAZIOA ETA ARLOAK

LEHENENGO KURTSOKO IKASGAIAK



ORDU BANAKETA

20 ordu /aste	4 ordu /aste	4 ordu /aste	20 ordu /aste
	4 ordu /aste	4 ordu /aste	
	4 ordu /aste	4 ordu /aste	
	4 ordu /aste	4 ordu /aste	
	4 ordu /aste	4 ordu /aste	
15 aste	15 aste		

1. MODULUA: IRAKASLEAREN LANBIDEA
1. KURTSOA 1. LAUHILABETEA
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

Irakaslearen Lanbidea		1 LH
Hezkuntzaren Soziologia	5 kr	6 kr
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	6 cr	6cr
Irakaskuntza-Funtzioa	5kr	6 kr
Komunikazio-Gaitasunaren Garapena I	5 kr	6 kr
Garapenaren Psikologia Eskola-Adinean	5 kr	6 kr
MODULO KO DISZIPLINARTEKO LANA		5 kr

Euskal Herriko Unibertsitateko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskoletan proposamen modularra egin dute. Planteamendu horri jarraiki, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean kreditu bat banatzen dute irakasgai bakoitzeko (2 puntu), sail ezberdinetako irakasgaiekin komuna den diziplina arteko lana burutzeko. Beraz, diziplina arteko lanak 5 kreditu ditu, eta 10 puntuko balorazioa, inplikaturako bost irakasgaien artean banatuko direnak. Diziplina arteko lana eskoletara bertaratzen diren ikasleei zuzenduta dago, bereziki. Amaierako txostena eman beharko da, eta kalifikazioaren 1/5 jasoko du; kalifikazio hori irakasgai bakoitzaren 8 puntuekin zenbatuko da. Gero, irakasgai bakoitzaren gaitasunak eta gaiak jasoko dira:

HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

SAILA: SOZIOLOGIA ETA GIZARTE LANA

	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK				
A) Soziologia giza jokabidearen alderdi sozialari buruzkoa ezagutza gisa ulertzea: sorrera eta oinarrizko kontzeptuak	X		X	
B) Hezkuntzaren alderdi soziala eta hark gizarteko egitura nahiz erakundeekin duen harremana aztertzea: gizartearen aldaketa eta erreproduzioa	X		X	
C) Ezagutza soziologikoa hezkuntzaren egoera eta haren eragileak kritikoki aztertzeke erabiltzea, hezkuntza bera hobeto ulertzeke	X			
D) Hezkuntzan eragina duten gizarteko ekintzak eta tresnak balioestea eta haiek hobetzeko proposamenak egitea		X	X	X
E) Hezkuntzari buruzko informazio garrantzitsua bilatzea, hautatzea, aztertzea eta laburtzea: dokumentalak, iturri estatistikoak, etab			X	X

1. GAIA.- Soziologiarako sarrera. Oinarrizko kontzeptuak. Gizarte-egitura eta norbanakoa. Gizarte-erakundeak. Soziologia eta hezkuntza.
2. GAIA.- Sozializazio-prozesua. Oinarrizko kontzeptuak. Sozializazio-eragileak: familia, eskola, hedabideak, informazioaren teknologiak, adin-taldeak.
3. GAIA.- Hezkuntzaren mikrosoziologia. Elkarrekintza ikasgelan. Curriculuma. Eskola-antolakuntza.
4. GAIA.- Hezkuntza-sistema eta gizarte-egitura. Hezkuntza-sistema eraikuntza historiko eta sozial gisa; sistemaren eragileak. Hezkuntza eta klase-desberdintasuna. Hezkuntza eta genero-desberdintasuna. Hezkuntza eta kultura askotarikotasuna. Hezkuntza eta lana.

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN GIDA

HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIA

SAILA: HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIA

	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK				
A). Eskolaren zeregina ezagutzea, ikuspegi pedagógico garaikideen bidez	X			
B). Hezkuntza eragileek irakaskuntzan duten funtzioa aztertzea, gelako interakzio- eta komunikazio-prozesuak nahiz irakaskuntzaren baldintza instituzionalak kontuan hartuta		X		
C). Euskal Herriko hezkuntza-sistemaren bilakaera historikoa eta hezkuntza-jarduera baldintzatzen duten politikak eta legeak ezagutzea	X			
D) Familia hezkuntza-eragilezat aztertzea: bilakaera historikoa, familia ereduak eta hezkuntza familiaren testuinguruan			X	
E). Familiaren eta haurtzaroaren bilakaera erlazionatzea, eta familien eta eskolen arteko harremanak aztertzea			X	

1. GAIA.- Hezkuntza-ingurura hurbiltzea.
2. GAIA.- Pentsamendu pedagogikoaren bilakaera. Hezkuntza-teoria garaikideak.
3. GAIA.- Hezkuntza garaikidearen historia Euskal Herrian.
4. GAIA.- Haurtzaroaren egoera eta eskubideak.

IRAKASKUNTZA FUNTZIOA

SAILA: DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
A) Irakaskuntza-jardueraren alderdiak eta eginkizun nagusiak ulertzea, eta maisu-maistren izaera profesionalari buruzko lehen lerroak osatzea	X	X		
B) Gelako interakzio- eta komunikazio-prozesuak ezagutzea, eta balioetan oinarritutako hezkuntza, elkarbizitza positiboa eta hezkuntza-behar anitzetarako erantzuna sustatzea		X	X	
C) Lehen Hezkuntzako tutorearen berariazko eginkizunak ezagutzea, baita familiarekin komunikatzeko eta elkarlanean aritzeko moduak ere		X	X	

1. GAIA.- Nortasun profesionala. Lehen Hezkuntzako irakasleen eginkizunak eta lanak.
2. GAIA.- Hezkuntzako esku-hartzearen mailak. Hezkuntza-harremana, lana taldeekin, hezkuntza-proiektuen kudeaketa. Lana egitea profesionalen taldeetan.
3. GAIA.- Hezkuntzako elkarrekintzaren eta komunikazioaren guneak. Ikasten ari diren talde/ikasgelen kudeaketa. Aniztasuna, nortasuna eta parekidetasuna eskolan. Bizikidetzarako hezkuntza.
4. GAIA.- Tutoretza-eginkizuna. Tutoretza egiteko guneak eta tresnak. Tutoretzako Ekintza Planen diseinua. Familiekin eta talde profesionalekin dauden harremanen edukiak eta formak.

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN GIDA

**KOMUNIKAZIO-GAITASUNAREN GARAPENA –EUSKARA ETA
GAZTELANIA – LEHEN-HEZKUNTZAN I**

SAILA: HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA

	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK				
A) Testuinguru akademikoan agertzen diren testuak aztertu, prozesatu eta sortu				X
B) Taldeko jardueretan parte hartu, elkarlana eta bakarkako lanaren bidez			X	
C) Hizkuntza-gaitasuna areagotzea bi hizkuntza ofizialetan.				X

1. GAIA.- Testuak eta berbaldiak aztertzeko eta sortzeko oinarrizko kontzeptuak.
2. GAIA.- Ahozko eta idatzizko testuak sortzea eta ulertzea, testuinguru akademikoaren berbaldi-generoetan berariazko arreta jarrita.

GARAPENAREN PSIKOLOGIA ESKOLA ADINEAN

SAILA: BILAKAERAREN ETA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA


IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
A) Bilakaeraren psikologiak giza garapenaren arloan eginiko ekarpenak ulertzea eta kontrastatzea, haurtzaroan eta nerabezaroan prozesu horren ezaugarriak hautemateko, familia, gizarte eta eskolaren testuinguruan			X	
B) Giza garapenaren ezaugarriak eta bizitzaren lehen zikloan bilakaera-prozesua osatzen duten elementuak identifikatzea eta deskribatzea hainbat une eta esparrutan, hezkuntzaren arabera interpretatzeko eta zailtasunak hautemateko			X	
C) Banaka eta taldeka irizpideak sortzea ikasleen gaitasunak garatzea ahalbidetuko duen hezkuntzako esku-hartzeen plangintza egiteko, erritmo heterogeneoak aintzat hartuz eta hainbat mailatatik abiatuz		X		

1. GAIA.- Bilakaeraren Psikologia eta Garapena.
2. GAIA.- 0tik 2 urte bitarteko haurren garapena
3. GAIA.- 2tik 6 urte bitarteko haurren garapena
4. GAIA.- 6tik 12 urte bitarteko haurren garapena

2. MODULUA: ESKOLA ETA CURRICULUMA

1. KURTSOA 2. LAUHILABETEA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA



Euskal Herriko Unibertsitateko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskoletan proposamen modularra egin dute. Planteamendu horri jarraiki, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean kreditu bat banatzen dute irakasgai bakoitzeko (2 puntu), sail ezberdinetako irakasgaiekin komuna den diziplina arteko lana burutzeko. Beraz, diziplina arteko lanak 5 kreditu ditu, eta 10 puntuko balorazioa, inplikaturako bost irakasgaien artean banatuko direnak. Diziplina arteko lana eskoletara bertaratzen diren ikasleei zuzenduta dago, bereziki. Amaierako txostena eman beharko da, eta kalifikazioaren 1/5 jasoko du; kalifikazio hori irakasgai bakoitzaren 8 puntuekin zenbatuko da. Gero, irakasgai bakoitzaren gaitasunak eta gaiak jasoko dira:

NATURAREN ZIENTZIAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASGELAN I

SAILA: MATEMATIKAREN ETA ZIENTZIA ESPERIMENTALEN DIDAKTIKA

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
A) Esperimentazio-zientzien lege nagusiak eta oinarrizko printzipioak ezagutzea eta ulertzea, alfabetatze zientifikoaren aldeko jarrerak sustatuz eta zientzia kultura-gertaera gisa balioetsiz			X	
B) Zientzia, gizarte, genero, eta teknologia-garapenaren arteko elkar eragina eta herritarren portaera egokiak ezagutzea, etorkizun iraunkorra eskuratzeko eta inguruaren aldeko jarrerak bultzatzeko		X		
C) Zientziaren izaerari eta zientzia-jarduerari buruzko jakintzak identifikatzeko tresnak eta metodoak diseinatzea; zientzia-jakintzaren aukerak, mugak eta erabilerak ezagutzea; eta, jakintzarekiko gizartearen eta norbanakoen jarreraren berri izatea, horren erabileran iruzurrak aurreikusteko eta identifikatzeko			X	
D) Norberaren eta taldearen erantzukizuna balioestea, norberaren zaintzari eta etorkizun iraunkorra lortzeari dagokionez.				X

1. GAIA.- Hezkuntzaren Zientzietako irakasuntza/ikaskuntzaren xedeak Lehen-hezkuntzan.
2. GAIA.- Ingurua eta bere zaintza.
3. GAIA.- Gizakia eta osasuna.
4. GAIA.- Izaki bizidunak eta bioaniztasuna.
5. GAIA.- Naturaren Zientzietako Lehen Hezkuntzako curriculum.

GIZARTE ZIENTZIAK ETA BEREN DIDAKTIKA I

SAILA: GIZARTE ZIENTZIEN DIDAKTIKA

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
1. Egitate soziala analizatzea, bere dimentsio ezberdinetan eta espazio-denboraren eskala anitzetan; formaziorako garrantziaz jabetu eta balioen hezkuntzarakoaz ere bai.	X			X
2. Funtzionamendu demokratikoaren oinarri eta osagaiak ulertu, euren bilakaera, baita erakunde publiko zein pribatuak; ikasle bakoitzaren erlazioa bere ingurunearekin baloratuz, gatazkak modu baketsuan konpondu ahal izateko.		X	X	X
3. Informazioa bilatu eta analizatzeko teknikak erabiltzea eta emaitzak zuzentasunaz komunikatzea.			X	X

1. GAIA.- Egitate soziokulturala eta bere alderdiak (ekonomikoa, erlijiosoa, ideologikoa, politikoa, artistikoa, inguruneari erantzuteko...), historian aldatzen doan gertaera gisa, maila globalean nahiz lokalean.
2. GAIA.- Herritarren hezkuntza demokratikoa eta gizarte-pentsaera kritikoa, bizikidetzarako tresna gisa. Euskal Herriko egungo errealitatearen azterketa.

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
A) Argumentu-kateen bidez, funtsezko ideiak identifikatuz eta haien balioa epaituz aztertzea, argudiatzea, egiaztatzea eta komunikatzea, ulermena eta espiritu kritikoa garatzeko, beste ikuspuntu batzuk onartzen ikasteko eta komunikaziorako gaitasunak hobetzeko				X
B) Testuinguru anitzetan problemak planteatzeko eta ebazteko, problemen enuntziatua ulertzea, horiek ebazteko estrategiak bilatzea eta egokienak hautatzea, eta egindako prozesuari buruz gogoetatzea, eguneroko edozein egoerarako autonomia eta ekimen pertsonala sustatzeko asmoz..			X	
C) Informazioaren nahiz komunikazioaren teknologia berriak modu kritikoa erabiltzea, matematikan didaktikoki aplikatzen ikasteko.				X
D) Matematikaren eta beste arlo batzuen arteko lotura balioestea, eraginak eta interakzioak aztertuz, pentsamendu zientifikoaren bilakaera historikoa eta egungo egoera ulertzeko			X	
E) Analisi, sintesi, kritika eta autokritikarako gaitasunak garatzea, elkarlaneko ikaskuntza edo ikaskuntza autonomotik abiatuta, egoera berrietara egokitu eta bizitza osoan ikasten jarraitu ahal izateko	X			

1. GAIA.- Matematikaren alderdi orokorrak.

2. GAIA.- Arazoen ebazpena.

3. GAIA.- Matematikak irudikatzeko teknologia eta tresna berriak.

DIDAKTIKA OROKORRA

SAILA: DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA

	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK				
A) 6-12 urteko aldiari dagozkion ikasgela barruko nahiz kanpoko hezkuntza-gertaerak aztertzea eta ulertzea			X	
B) Elkarrekintzako eta komunikazioko prozesuak ezagutzea ikasgelan			X	
C) Ikasgelako irakaskuntza-jarduera eta ikaskuntza diseinatzea, plangintza egitea eta ebaluatzea			X	
D) Lankidetzalana eta norberaren lana eta eginahalak sustatzea			X	
E) Esperientzia berritzaileak ezagutzea eta lehen-hezkuntzan aplikatzea	X			

1. GAIA.- Didaktikaren oinarriak. Didaktikaren kontzeptua eta ikergaia. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua.
2. GAIA.- Irakaskuntzaren eta curriculumaren teoriak. Curriculuma, oinarrizko kontzeptuak. Curriculumaren politika: curriculum ofiziala. Curriculumaren oinarriak eta zehazte mailak
3. GAIA.- Curriculumaren diseinua eta garapena. Plangintza prozesu eta emaitza gisa. Curriculumaren diseinuari eta garapenari buruzko ikuspegiak.
4. GAIA.- Diseinuaren osagaiak: curriculumaren helburuak, gaitasunak eta edukiak. Didaktikako metodologia eta irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak. Antolakuntzako aldagaiak: espazioa, denbora eta taldekatzeak. Bitarteko didaktikoak: materialak eta baliabideak.
- 5.- GAIA.- Ebaluazioa: kontzeptua eta helburua. Ebaluatzeko prozedurak eta tresnak.
6. GAIA.- Hezkuntza-berrikuntza eta -aldaketa. Irakaslearen eginkizuna berrikuntzan.

	Kurtsoko gaitasunak			
	1	2	3	4
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK				
A) 6-12 urteko aldiari dagozkion hezkuntza-prozesuak aztertzea eta ulertzea familian, gizartean eta eskolan, ikaskuntzaren teoria psikologikoen ekarpenak eta gaitasunen irakaskuntzan oinarritutako egungo planteamenduak interpretatuta			X	X
B) Hezkuntza-egoeren irtenbideak identifikatzea eta horien plangintza egitea ikasleen askotariko erritmoak eta gaitasunak aintzat hartuz (norbanako gisa eta familiako eta testuinguru soziokultural jakin bateko kide gisa). Horretarako, hainbat prozedura eta teknika aukeratu eta horien aplikazioa argudiatuko da			X	X
C) Gizarte-trebetasunak izatea testuinguru anitzetan hezkuntza-egoerak ulertzeko eta bideratzeko, eta norberaren eginahalaz eta hausnarketarako gaitasunaz elkarlanari laguntzea			X	X


1. GAIA.- Hezkuntzaren Psikologia.
2. GAIA.- Ikaskuntzari eta ezagutzaren eraikuntzari buruzko teoriak.
3. GAIA.- Eskola-ikaskuntza eta motibazioa.
4. GAIA.- Auto-kontzeptua eta auto-estimua, eta ikaskuntzarekin duen harremana.
5. GAIA.- Pertsonen arteko harremana eskolako testuinguruan.

BIGARREN KURTSOA

BIGARREN KURTSOKO KONPETENTZIAK

	2. KURTSOA	GRADUAREN ARDATZAK
1.K	Hezkuntza-prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea, ikasgelan eta zentroan esku-hartze egokia egiteko, ikasleen beharrei eta ikaskuntzako zailtasunei inklusioko irizpideen arabera erantzunez	TESTUINGURUA ZEHATZTEA
2.K	Ezagutza praktikoa eskuratzea, behaketa teknikak erabiliz, datuak bilduz, aztertuz eta ebaluatuz, bai lehen hezkuntzako gelan eta bai eskola inguruan.	BEHAKETA ETA ANALISIA
3.K	Esperientzia eremuen printzipioak ezagutzea, beren berariazko baliabide didaktikoak aplikatuz irakaskuntza-jardueraren hurbilketan	ULERTZE ETA EZARTZE
4.K	IKTak erabiltzea, norberaren eta elkarlanaren ikaskuntzako eta ezagutza eraldatzeko tresna gisa, askotariko baliabide grafikoak eta multimedia-baliabideak erabilia	KOMUNIKAZIOA ETA ARLOAK
5.K	Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialen komunikazio-gaitasunak garatzea, erreferentziako Europako esparruaren B2 maila lortu arte	

BIGARREN KURTSOKO IKASGAIAK




ORDU BANAKETA

Practicum I	22,5	3 ordu/aste	4 ordu/aste	19 ordu/aste
1 aste (formazioa)	ordu/aste	1,5 ordu/aste	3 ordu/aste	
		6 ordu/aste	4 ordu/aste	
		6 ordu/aste	4 ordu/aste	
		6 ordu/aste	4 ordu/aste	
+				
5 aste (egonaldia)				
5 aste	10 aste		15 aste	

3. MODULUA: KOMUNIKAZIO LANABESA

2. KURTSOA 1. LAUHILABETEA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA



Euskal Herriko Unibertsitateko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskoletan proposamen modularra egin dute. Planteamendu horri jarraiki, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean 6 kredituetako irakasgai bakoitzeko kreditu bat konpartitzen da (2 puntu). Practicumak ez du punturik ematen, baina euskarri moduan balio du sail ezberdinetako jakintzagaiekin komuna den diziplina arteko lana burutzeko. Kurtso osoko ikasgaien kasuan "ikastetxearen antolakuntza" eta " artearen eta ikuskulturaren hezkuntza", kalifikazioaren nondik norakoa irakasle taldeak azalduko du. Diziplina arteko lana eskoletara bertaratzen diren ikasleei zuzenduta dago, bereziki. Amaierako txostena eman beharko da, eta irakasgai bakoitzaren kalifikazioaren 1/5 jasoko du; kalifikazio hori irakasgai bakoitzaren amaierako puntuazioari gehituko zaio. Gero, irakasgai bakoitzaren gaitasunak eta gaiak jasoko dira:

MUSIKA LEHEN HEZKUNTZAN

SAILA: MUSIKA, PLASTIKA ETA GORPUTZ ADIERAZPENAREN DIDAKTIKA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN GIDA

IRAKASGAIAREN KOMPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
A) Musika-hezkuntzaren eskola-curriculumak garatzea			X		
B) Baliabideak eskuratzea musika-jardueretan bizitza osoan parte-hartzea sustatzeko, eskola barruan nahiz kanpoan			X		
C) Musika-hezkuntzako curriculumaren edukiak garatzea eta ebaluatzea, baliabide didaktiko egokien bitartez		X			

1. GAIA.- Musika, Lehen Hezkuntzako curriculumean.
2. GAIA.- Musika esparru formalean, ez-formalean eta informalean.
3. GAIA.- Ahotsa, komunikatzeko osagai gisa eta adierazteko tresna eta bitarteko gisa.
4. GAIA.- Musikako eta didaktikako baliabideak lehen-hezkuntzan.
5. GAIA.- Musika-hezkuntza eta aniztasunari arreta.

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN GIDA

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK LEHEN-HEZKUNTZAN

SAILA: DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA

	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK					
A) IKTek hezkuntzan eta gizartean duten eragina eta familiako zien eskolako hezkuntzan nola eragiten duten aztertzea eta modu kritikoan txertatzea	X				
B) IKTen bidez elkarrekintza, komunikazio eta lankidetzako prozesuak ezagutzea, horiek sustatu ahal izateko				X	X
C)Tecnologian oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntza prozesu berritzaileak planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, hezkuntza-testuinguru formaletan			X	X	
D) IKTen bidez hezkuntza-materialak aukeratzen, egiten eta ebaluatzen jakitea, aurrez aurreko irakaskuntzaren eta irakaskuntza birtualaren testuinguruetan			X	X	
E) Bizitzan zeharreko ikaskuntza iraunkorraren eta garapen profesionalaren kultura garatzea				X	

1. GAIA.- Jakintzaren gizartea.
2. GAIA.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia hezkuntzarako.
3. GAIA.- IKTen irakaskuntza-jarduera egokiak.

**KOMUNIKAZIO-GAITASUNAREN GARAPENA –EUSKARA ETA
GAZTELANIA – LEHEN-HEZKUNTZAN II**

SAILA: HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
A) Lehen hezkuntzako testuinguruan agertzen diren testuak erabili, sortu eta prozesatu.				X	
B) Eskolaren inguru soziokulturalean eta eskolako familiekin elkarrekintzan aritzeko beharrezkoak diren gizarte- eta komunikazio-gaitasunak garatzea.				X	
C) Hizkuntza-gaitasuna hobetu bi hizkuntza ofizialetan.		X			

1. GAIA.- Hizkuntza-trebetasunak eta haien arteko harremanak. Azpian dauden prozesu kognitiboak.
2. GAIA.- Eskolako ahozko eta idatzizko testuen analisisa eta behaketa, horiek osatzen dituzten testuko eta testuinguruko osagaietan arreta jarritz.
3. GAIA.- Testuak aztertzea eta sortzea lan eremuan.

ARTEAREN ETA IKUS-KULTURAREN HEZKUNTZA

SAILA: MUSIKA, PLASTIKA ETA GORPUTZ ADIERAZPENAREN DIDAKTIKA

COMPETENCIAS DE LA ASIGNATURA	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
A) Ekoizpen artistikoak eta estetikoak modu kritikoan aztertzea, hizkuntza bisualak kultura adierazteko, komunikatzeko eta ulertzeko tresna gisa erabilia, eta informazioa eta dokumentazioa jasotzeko, behatzeko eta hautemateko prozesuak aplikatuta	X			X	
B) Hezkuntza artistikoari eta kultura bisualari buruzko eskolako curriculum eta gaur egungo ikerkuntza aztertzea eta ebaluatzea, arloko proiektu berritzaileak diseinatu ahal izateko			X		
D) Baliabideak lortu jarduera plastikoan parte-hartzea sustatzeko, eskola barruko eta eskolatik kanpoko jardueretan bizitza osoan zehar		X			

1. GAIA.- Kultura bisuala. Begiradaren hezkuntza; inguruko estetikaren pertzepzioa. Kultura bisualaren eremuaren ekoizpenak aztertzea.
2. GAIA.- Hizkuntza bisualak, kultura ulertzeko, komunikatzeko eta adierazteko tresna gisa.
3. GAIA.- Kultura bisuala haurtzaroan. Ikonoen sorrerako erreferenteak eta prozesuak.
4. GAIA.- Didaktikako ereduak eta curriculumeko erreferenteak Arte Hezkuntzan eta Kultura Bisualean. Ikuspegi historikoa eta egungo eztabaidak.

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

SAILA: DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA

	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK					
A) Hezkuntza-zentroetako testuinguru sozialak eta instituzionalak aztertzea, egoera bakoitzari egokitutako hezkuntzako eta antolakuntzako ekintzak modu kritikoan diseinatzeko	X	X			
B) Hezkuntza-antolakuntzen helburu instituzionalei buruz hausnartzea, bere gizarte-testuinguruan izandako aldaketen arabera	X	X	X		
C) Taldekatzeak, baliabide materialak eta funtzionalak zentroaren hezkuntza-proiektuaren zerbitzura jarritako bitarteko gisa definitzea, eta modu kritikoan ebaluatzea helburu hori kontuan hartuz		X	X		
D) Hezkuntza-antolakuntzak sistema dinamiko gisa identifikatzea, hau da, bere hezkuntzako zein curriculumeko erantzuna egiten hobetzeko eta ikasteko gaitasuna duten eta prozesu horietan modu emankorrean parte hartzeko gai diren sistema gisa		X	X	X	

1. GAIA.- Hezkuntza-zentroen esanahia, antolakuntzak diren neurrian.
2. GAIA.- Eskolako antolakuntzen gizarte-testuingurua eta ingurua.
3. GAIA.- Eskolako Instituzioa, antolakuntza gisa.
4. GAIA.- Eskola-hobekuntza eta erakundearen ebaluazioa.

PRACTICUM I

IRAKASGAIAREN GAITASUNAK	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
a) Ikasgelari eta haren kudeaketari buruzko ezagutza praktikoak izatea.		X			
B) Ikasgelako elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak behatzea, giro ona izateko.	X	X			
C) Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea.	X				

1. gaia. PRAKTIKETARA HURBILTZEA

2. gaia. ESKOLAKO ERREALITATEA BEHATZEA

2.1. Behaketaren helburua eta baligarritasuna, irakaskuntzan; aztertu ditzakeen aldagaiak.

2.2. Behaketa-teknikak, -motak, eta -moduak, eta informazioa jasotzea:

2.3. Ikastetxeetan dauden dokumentazio-iturriak.

2.4. Ikasgelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten aldagaiak behatzea.

2.5. Informazioaren azterketa eta interpretazioa.

2.6. Aniztasuna, behaketaren helburu gisa: generoa, kultura artekotasuna...

3. gaia. ESKOLA ERREALITATEA ETA IKASGELAKO ELKARREKINTZA PROZESUAK AZTERTZEA

3.1. Zentroaren eta inguru fisikoaren, sozioekonomikoaren eta kulturalaren arteko harremana.

3.2. Ikastetxearen eta ikasgelaren egitura eta antolamendua.

3.3. Zuzendaritza.

3.4. Pedagogi batzordea.

3.5. Fasearen antolamendua.

3.6. Irakaskuntza-koordinazioa.

3.7. Zentroko hizkuntza-proiektua.

3.8. Zentroko hezkuntza proiektua eta faseko curriculum diseinua.

4. gaia. KANPOKO HEZKUNTZA ZERBITZUAK

4.1. Berritzeguneak, talde multiprofesionalak, baliabideak eta laguntzaileak.

4.2. Hezkuntza-administrazioa. Erreferentziazko marko legegilea.

5. gaia. MEMORIA. Aurkezpenak prestatzea eta komunikazio-teknikak erabiltzea.

4. MODULUA: ANIZTASUNA ESKOLAN
2. KURTSOA 2. LAUHILABETEA
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

Aniztasuna Eskolan	3 LH		
Ikastetxearen Antolakuntza	5 kr	5 kr	6 kr
Artearen eta Ikus-kulturaren Hezkuntza	5 kr	5 kr	6 kr
Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan	5 kr	5 kr	6 kr
Eskola Inklusiboaren Oinarriak	5 kr	5 kr	6 kr
Zailtasun Garapena eta Ikaskuntza	5 kr	5 kr	6 kr

5 kr
 MODULOKO DISZIPLINARTEKO LANA

Euskal Herriko Unibertsitateko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskoletan proposamen modularra egin dute. Planteamendu horri jarraiki, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean kreditu bat banatzen dute irakasgai bakoitzeko (2 puntu), sail ezberdinetako irakasgaiekin komuna den diziplina arteko lana burutzeko. Beraz, diziplina arteko lanak 5 kreditu ditu, eta 10 puntuko balorazioa, inplikaturako bost irakagaien artean banatuko direnak. Diziplina arteko lana eskoletara bertaratzen diren ikasleei zuzenduta dago, bereziki. Amaierako txostena eman beharko da, eta kalifikazioaren 1/5 jasoko du; kalifikazio hori irakasgai bakoitzaren 8 puntuekin zenbatuko da. Gero, irakasgai bakoitzaren gaitasunak eta gaiak jasoko dira:

IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

SAILA: DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA

	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK					
A) Hezkuntza-zentroetako testuinguru sozialak eta instituzionalak aztertzea, egoera bakoitzari egokitutako hezkuntzako eta antolakuntzako ekintzak modu kritikoan diseinatzeko	X	X			
B) Hezkuntza-antolakuntzen helburu instituzionalei buruz hausnartzea, bere gizarte-testuinguruan izandako aldaketen arabera	X	X	X		
C) Taldekatzeak, baliabide materialak eta funtzionalak zentroaren hezkuntza-proiektuaren zerbitzura jarritako bitarteko gisa definitzea, eta modu kritikoan ebaluatzea helburu hori kontuan hartuz		X	X		
D) Hezkuntza-antolakuntzak sistema dinamiko gisa identifikatzea, hau da, bere hezkuntzako zein curriculumeko erantzuna egiten hobetzeko eta ikasteko gaitasuna duten eta prozesu horietan modu emankorrean parte hartzeko gai diren sistema gisa		X	X	X	

1. GAIA.- Hezkuntza-zentroen esanahia, antolakuntzak diren neurrian.
2. GAIA.- Eskolako antolakuntzen gizarte-testuingurua eta ingurua.
3. GAIA.- Eskolako Instituzioa, antolakuntza gisa.
4. GAIA.- Eskola-hobekuntza eta erakundearen ebaluazioa.

ARTEAREN ETA IKUS-KULTURAREN HEZKUNTZA

SAILA: MUSIKA, PLASTIKA ETA GORPUTZ ADIERAZPENAREN DIDAKTIKA

COMPETENCIAS DE LA ASIGNATURA	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
A) Ekoizpen artistikoak eta estetikoak modu kritikoan aztertzea, hizkuntza bisualak kultura adierazteko, komunikatzeko eta ulertzeko tresna gisa erabilia, eta informazioa eta dokumentazioa jasotzeko, behatzeko eta hautemateko prozesuak aplikatuta	X			X	
B) Hezkuntza artistikoari eta kultura bisualari buruzko eskolako curriculum eta gaur egungo ikerkuntza aztertzea eta ebaluatzea, arloko proiektu berritzaileak diseinatu ahal izateko			X		
D) Baliabideak lortu jarduera plastikoan parte-hartzea sustatzeko, eskola barruko eta eskolatik kanpoko jartueretan bizitza osoan zehar		X			

1. GAIA.- Kultura bisuala. Begiradaren hezkuntza; inguruko estetikaren pertzepzioa. Kultura bisualaren eremuaren ekoizpenak aztertzea.
2. GAIA.- Hizkuntza bisualak, kultura ulertzeko, komunikatzeko eta adierazteko tresna gisa.
3. GAIA.- Kultura bisuala haurtzaroan. Ikonoen sorrerako erreferenteak eta prozesuak.
4. GAIA.- Didaktikako ereduak eta curriculumeko erreferenteak Arte Hezkuntzan eta Kultura Bisualean. Ikuspegi historikoa eta egungo eztabaidak.

**HIZKUNTZAREN DIDAKTIKAREN OINARRIAK LEHEN HEZKUNTZAN
TESTUINGURU ELEANITZETAN**

SAILA: HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA

	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK					
A) Komunikazio eta hizkuntzaren zientzien oinarriko printzipioak ulertzea			X		
B) Hizkuntzen eta literaturaren eskola-curriculumaz ezagutzea			X		
C) Dagokion Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofizialak ongi eta egokitasunez hitz egiten, irakurtzen eta idazten jakitea				X	
D) Beste hizkuntzetako ikasleek hizkuntza ofizialak ikasteko dituzten zailtasunak ezagutzea	X				

1. GAIA.- Hizkuntzaren didaktikaren oinarri teorikoak.

2. GAIA.- Hizkuntzak eskolan

ZAILTASUNAK GARAPENEAN ETA IKASKUNTZAN

SAILA: BILAKAERAREN ETA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA

	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK					
A) Ikasleen nortasunaren garapena ulertu ahal izateko beharrezkoak diren ezagutzak izatea, ikasleen aniztasuna eta testuinguru soziokultural aldakorrak aintzat hartuz; hartara, gerta daitezkeen disfuntzioak zuzen identifikatuko dira	X	X		X	X
B) Garapenaren eta ikaskuntzaren zailtasunak hautematea eta balioestea, eta beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea horiei erantzuteko eta zailtasunak dituzten ikasleak hezkuntzan integratzeko. Hori ikastetxeko profesionalen eta familien laguntzaz egingo da, planteatutako hezkuntza-premiei batera ekiteko eta hezkuntza-erantzuna eraginkorragoa izateko	X	X		X	X
C) Eskola eremuan askotariko ikaskuntza erritmo, gaitasun eta garapen-nahasmen dituzten ikasleei eragiten dieten hezkuntza-egoeren irtenbideak identifikatzea eta horien gaineko plangintza egitea	X	X		X	X

1. GAIA.- Garapen psikologiko arrunta eta patologikoa haurtzaroan: alderdi kontzeptualak eta azaltzeko ereduak.
2. GAIA.- Haurtzaroaren berezko nahasmen psikologikoa: sailkapena, prebentzio-estrategiak eta hezkuntzako esku-hartze teknikak (zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan).
3. GAIA.- Urritasun psikikoak, zentzumenezkoak eta motorrak: garapenaren alderdi bereizgarriak eta jarduera-ildoak ikasgelan.

ESKOLA INKLUSIBOAREN OINARRIAK

SAILA: DIDAKTIKA ETA ESKOLA ANTOLAKUNTZA

IRAKASGAIAREN KONPETENTZIAK	Kurtsoko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
A) Eskola inklusibora iritsi arteko hezkuntza-sistemaren eraldatze-prozesu historikoa eta soziala aztertzea.				X	
B) Ikaskuntzako gaitasun eta erritmo askotara egokitutako hezkuntza-erantzunak egitea. Adituekin lankidetzan aritzea hezkuntza-premiei erantzuteko	X	X			
C) Aniztasunaren arretari buruzko arau-esparrua aztertzea, eta baita eskolari laguntzeko zerbitzuen sarearen eginkizunak ere	X				

1. GAIA.- Eskola aniztasunaren aurrean: kontzeptuen eta eskolaratzeko jardueren bilakaera. Eskola Inklusiboa.
2. GAIA.- Hezkuntza-premiei eman beharreko erantzuna. Neurri arruntak eta ezohikoak; neurrien mailatzea. Curriculum erantzunaren gune gisa: zentroaren curriculum-proiektua; ikasgelako programazioak; hezkuntza-errefortzuko neurriak; curriculumera sartzeko egokitzapenak; norbanakoentzako curriculum-egokitzapenak.
3. GAIA.- Hainbat hezkuntza-premia bereziki emandako erantzun inklusiboaren ezaugarriak: gabezi sentsorialak eta motoreak; horniketa bereziak; komunikazioko zailtasunak; buruko osasun-arazoak; garapenaren nahasmen orokorrak...
4. GAIA.- Hezkuntza-premiei erantzuteko araudi-esparrua. Eskolari laguntzeko zerbitzuak eta profesionalak.
5. GAIA.- Eskolako hainbat ikasle edo talderen parte-hartzea edo ikaskuntza eragozten duten egoerak aztertzea, eta egoera horiei aurre egiteko erantzun inklusiboak

HIRUGARREN KURTSOA

HIRUGARREN KURTSOKO KONPETENTZIAK

	3. KURTSOA	GRADUAREN ARDATZAK
1.K	Irakaskuntza-jardueran parte-hartzea eta esku-hartzea, praktikaren gaineko hausnarketak eginez eta testuinguruan ekiteko lan-irizpideak adieraziz	TESTUINGURUA ZEHAZTEA
2.K	Irakaskuntza-jarduerari bideratutako estrategia eta baliabide didaktikoak aztertzea eta alderatzea banaka nahiz taldeka, komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabilia	BEHAKETA ETA ANALISIA
3.K	Etapako curriculum arloetarako proposamen didaktikoak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, jarduerari lotutako arazoen eta erronken gaineko gogoetak eginez eta ikasleen hezkuntza beharrak, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta giza eskubideak aintzat hartuz	ULERTzea ETA EZARTzea
4.K	Komunikazio- eta adierazpen-trebetasunak hobeto menderatzea	-KOMUNIKAZIOA ETA ARLOAK

5. MODULUA: EUSKAL CURRICULUMEKO GAITASUNAK

3. KURTSOA

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA



ORDU BANAKETA

20 ordu/aste	4 ordu/aste	Practicum II	
	4 ordu/aste		
	3 ordu/aste		1 aste (formazioa)
	3 ordu/aste		
	4 ordu/aste		+
	4 ordu/aste		
22 aste		8 aste	

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN GIDA

Euskal Herriko Unibertsitateko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskoletan proposamen modularra egin dute. Planteamendu horri jarraiki, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean 6 eta kredituetako irakasgai bakoitzeko kreditu bat edo kreditu eta erdi konpartitzen dira (2 puntu), hurrenez hurren. Practicumak ez du punturik ematen, baina euskarri moduan balio du sail ezberdinetako jakintzagaiekin komuna den diziplina arteko lana burutzeko. Beraz, diziplina arteko lanak 8 kreditu ditu, eta 14 puntuko balorazioa, inplikaturako zazpi irakagaien artean banatuko direnak.

